



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ZUZENBIDE FAKULTATEA

2021-2022

GrAL

EMAKUMEENGAN ERAGINA DUTEN TRIBUTU- NEURRIAK

Lanaren egilea: **GARAZI SAEZ CABALLERO**

Lanaren zuzendaria: SUSANA SERRANO GAZTELUURRUTIA

Berrikuntza Proiektuak 2021/2022

**«Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa, diziplinarteko ikuspegitik»
(IKDi3 21-30)**

LANAREN LABURPENA:

Emakumeen aurkako indarkeria gure gizartean dagoen desberdintasunaren sinbolorik itzelena dugu, eta desberdintasun hori eragiten edo iraunarazten duten eragile ezberdinak ditugu, hala nola, zerga-sistema.

Horregatik lan honek finantza zuzenbideak emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriarri nola eragin diezaiokeen aztertzea du, aurrekontu neurrietan bai eta zerga-bilketan ere.

HITZ GAKOAK: genero indarkeria, genero desberdinkeria, finantza sistema, *mainstreaming*, PFEGZ, baterako aitorpena, amatasunagatiko kenkaria, alarguntza pentsioa, BEZa

RESUMEN:

La violencia de género es el símbolo más brutal de la desigualdad existente en nuestra sociedad, y existen distintos factores que provocan y perpetúan dicha desigualdad, entre otros, el sistema tributario.

Por ello, el objeto de este trabajo será tratar de analizar en qué medida afecta el sistema de tributos a la desigualdad de género, tanto en lo que se refiere a medidas presupuestarias, así cómo a las recaudatorias.

PALABRAS CLAVE: violencia de género, desigualdad de género, sistema tributario, *mainstreaming*, IRPF, tributación conjunta, deducción por maternidad, pensión de viudedad, IVA.

ABSTRACT:

Violence against women is the most brutal symbol of gender inequalities in our society, and there are several elements that cause and perpetuate such inequalities, for instance, the financial system.

Therefore, the aim here will be to try to analyse the impact that financial systems have on gender inequalities, regarding both, budget and tax measures.

KEY WORDS: violence against women, gender inequalities, financial system, *mainstreaming*, PIT, “tributación conjunta”, maternity reductions, widow’s pension, VAT

Laburdurak

Art.	Artikulu
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
BEZa	Balio Erantsiaren gaineko Zerga
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EK	Espainiako Konstituzioa
FA	Foru Araua
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
LKA	Lurralde Komuneko Araua
LO	Lege Organikoa
Orr.	Orrialde
PFEGZ	Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga

AURKIBIDEA

Laburdurak	3
1. Genero indarkeria.....	5
2. Finantza sistema eta bere garrantzia genero-indarkeriaren esparruan	7
2.1. Finantza sistemen erabilpena.....	8
2.2. Finantza sistema eta genero-ikuspegia.....	9
3. Estatuaren eta Foru Ogasunen eskumena finantza sisteman	12
4. Desberdinkeriak konpontzeko aurrekontu neurriak	14
4.1. Genero Indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaizkien diru-laguntzak 14	
4.2. Berdintasun politiketarako aurrekontua	16
5. Desberdinkeria sortzen duten aurrekontu neurriak: Estatua eta Bizkaiko Foru Ogasuna.....	17
5.1. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (PFEGZ).....	17
A. PFEGZri buruzko orokortasunak.....	17
B. PFEGZn, desberdinkeria sortzen duten elementuei bideratzen den aurrekontua 17	
a) Baterako aitortpena.....	18
b) Amatasunagatiko kenkaria.....	27
5.2. Biziarteko alargun pentsioa	29
6. Desberdinkeria jasotzen eta sortzen dituzten diru-bilketa neurriak.....	30
6.1. BEZa: finantza sistemaren diru-bilketa neurria.....	31
A. BEZari buruzko orokortasunak.....	31
B. Zergak jasotzen dituen genero-desberdinkeriak	32
C. Zergan genero desberdinkeriak jasotzen duten elementuak.....	33
a) Zeharkako zerga izatea	33
b) Zaintzagatiko tasa.....	34
c) Tanpoiagatiko tasa.....	34
d) Tasa arrosa.....	35
D. Ondorioak	35
7. Ondorioak eta proposamenak.....	36
8. Aztertu gabeko gaiak	38
9. Eranskina: lanaren etekinaren hobaria	39
Bibliografia	43
Lege-bibliografia:	45


1. Genero indarkeria

Emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari buruzko datuen eskuragarritasuna nabarmen handitu da azken urteotan. Eta horrela ezagutu da emakumeen aurka ematen den indarkeria gehiena senarrek, bikotekideek edo senar/bikotekide ohiek burutzen dutela.

2018an zazpi emakumetik batek bikotekidearen edo senarraren indarkeria fisikoa edota sexuala jasan zuela zenbatetsi da. Eta 2020an mundu mailan erail zituzten 81 mila emakumeetatik, 47 mila (%58a) bikotekide edo senideek erail zituzten.¹ Espainian 2003-2021 urteen bitartean 1144 emakume erail dituzte, bikotekide edo bikotekide ohiek². Covid-19 testuinguruan egoera ez da hobetu.³

Espainiako Gobernuaren Genero Indarkeriari buruzko behatokiaren arabera, 2003tik 2022ko maiatzaren 13ra arte estatuan eraildako emakumeen zenbatekoak honakoak dira:

Espainiako estatuan eraildako emakumeen zenbatekoak



Iturria: norberak egina, espainiako gobernuko datuak erabilia.⁴

¹ ONU Mujeres (2022) <https://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/facts-and-figures>

² Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género. (2022ko maiatzak 13ko datua) <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/home.htm>

³ ONU Mujeres (2021) <https://data.unwomen.org/sites/default/files/documents/Publications/Measuring-shadow-pandemic-SP.pdf>

⁴ Genero Indarkeriaren aurkako Espainiako obernaren Ordezkaritza <http://estadisticasviolenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/>

Zifra hauek guztiak gizarte-erretratu beldurgarria osatzen dute, horregatik arazo honi erreparatzea eta, batez ere, erantzuna emateko baliabideak ezartzea ezinbestekoa da. Gizartearen gero eta zati zabalago baten kezka bihurtzen doan fenomeno da. Azken hamarkadetan erantzun zabalagoa jasotzen joan da, gizartearen eremu orotatik, soziala, politikoa, ekonomikoa eta juridikoa besteak beste.

Laurogeita hamarreko hamarkadan mugimendu feministak bikote eremuan ematen diren tratu txarren salaketa mahaigainertzen du. Banandutako eta Dibortziatutako Emakumeen Federazioaren eskutik banantze-prozesuetan maiz agertzen den emakumeen aurkako indarkeriaren problematika agerian gelditzen da, eta hedabideek arazoari ematen dioten bultzadaz eremu juridikoan aurrerapauso garrantzitsuak ematen dira: gaur egun indarrean jarraitzen duten bi legeren aldarrikapena lortzen da. Lehena, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa (aurrerantzean 1/2004 LO); eta bigarrena, Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko 3/2007 Lege Organikoa (aurrerantzean 3/2007 LO).⁵

1/2004 Lege Organikoa genero indarkeriaren definizioa ezarri eta, gainera, genero indarkeria eremu publikoari dagokion arazo gisa zehazten du. Legeak honakoa jasotzen du: *genero indarkeria historikoki emakumeen eta gizonen artean desberdinak izan diren botere-harremanen adierazpena da*. Berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko oztopoa eta giza- eta oinarrizko-eskubideen aurkako. Emakumeen aurka ematen da emakume izate soilagatik, erasotzaileek emakumeak askatasun, errespetu eta erabakiak hartzeko gaitasun gabetzat jotzen dituztelako. Eta ez da eremu pribatuari dagokion arazoa, gizartean dagoen desberdinkeraren sinbolo itzelena baizik. Horregatik, botere publikoek arazoari eutsi behar diote, Espainiako Konstituzioak aldarrikatzen dituen oinarrizko eskubideen (askatasuna, berdintasuna, bizitza, segurtasuna eta diskriminazio-eza) aurkako eraso nabarmenatarikoa baita.⁶

Gainera, 1/2004 LOk genero-indarkeriaren kontzeptua zehazten du (1. art.), eta honen arabera genero indarkeriatzat jotzen da ezkontide edo antzeko harremana duten edo izan duten gizonen emakumeen aurka burutzen duten indarkeria. Beraz, orri hauetan landuko den emakumeen kontrako indarkeria, bikote eremuari dagokiona izango da: genero-indarkeria.

⁵ MARTÍNEZ-REDONDO, P., AROSTEGUI, E. (2021), 15. Orr.

⁶ 1/2004 Lege Organikoa. Zioen-azalpena I eta II.

Bestetik, 3/2007 Lege Organikoak agerian uzten du ordura arteko lege-testuekin ez dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasun efektiboa lortu, eta botere publikoen jarduketak eremu ezberdinetan bultzatzea bilatzen du.⁷ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun formala, lege honen aurretik ezarri da jada, besteak beste, espainiar sistemako lege gorenean, Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan. Baina lege honek Espainian berria den berdintasun printzipioaren transbertsalitatea jasotzen du, zeinari jarraiki, Botere Publikoen ekintza orok emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuari so egin behar dion eremu orotan, besteak beste, eremu ekonomikoan (1. art.) eta aurrekontuen ezarpenean (15. art.) berdintasuna lortzeko aipamen zehatza jasotzen du.

Horrela, genero indarkeriaren oinarria den genero-desberdinkerari eremu orotatik eusteko beharra ezartzen du. Eta honekin, genero indarkeriari finantza zuzenbidearen ikuspegitik begirada bat emateko beharra sortzen zaigu.

2. Finantza sistema eta bere garrantzia genero-indarkeriaren esparruan

Genero indarkeriari fenomeno islatua bailitzan eutsi zaio, eta arazoari aurre egiteko berriazko neurriak erabili dira bakarrik. Baina gero eta gehiago doa indartzen Rebeca GRYNSPAN-ek, Nazio Batuen Erakundeko Garapenerako Programaren eskualdezuzendariak, mahaigainertutako ideia: “emakumeak zenbat eta ekonomikoki independenteagoak izan orduan eta indarkeria gutxiago jasango lukete”. Hortaz, erasotzaileak jazartzeko eta biktimak babesteko erabiltzen diren baliabideak ezartzea ez ezik, ezinbestekoa da politika publikoen eremu orotan ahaleginak egitea eta genero-desberdinkeriak desagerraraztera bideratzen den aurrekontua ezartzea, emakumeen babeserako tresnarik onena baita.⁸

Hau da, finantza sistemak indarkeria pairatu duten emakumeei laguntza emateko balio duen tresna da. Aurrekontuak emakumeei laguntza juridikoa, soziala eta ekonomikoa emateko erabili daitezke. Eta erasotzaileen tratamendurako ere baliabide ekonomikoak ezar daitezke. Baina finantza sistemari begirada zabalago bat eman, eta emakumeen menpekotasun eta pobrezia ekonomikoa indartzen duten arauak jasotzen direla

⁷ (MONTENEGRO, S. (2016), “El antes y el después de la Ley Orgánica 3/ 2007”. *REDUR* 14: 117-136). Hemen Ikusia: MARTÍNEZ-REDONDO, P., AROSTEGUI, E. (2021) 15. orr.

⁸ PAZOS, M., (2009), 15. orr.

identifika daiteke. Emakumeen independentzia ekonomiko eza indarkeria egoeretatik azkentzeko oztopoa da, erasotzailearengandik banatzekotan pobrezia ekonomiko egoera pairatuko luketelako. Horregatik lan honetan emakume eta gizonen arteko desberdinkeria jasotzen duten eta emakumeen independentzia ekonomikoa eragozten duten finantza arauen azterketa egiten saiatuko gara da.

2.1. Finantza sistemen erabilpena

Finantza sistema zerga-bilketarako eta gastu publikoa finkatzeko Estatuak erabiltzen dituen elementuen multzoa da. Zergak, legeak, zerga-bilketaz arduratzen diren erakundeak eta gastu publikoaren egituraketa eta gauzatzeari buruzko erabakiak barne hartzen ditu.⁹

Finantza politikak gobernuen garapen-estrategia adierazten du, eta beren lehentasunak eta politika ekonomiko eta sozialen joera gauzatzen dituzte, zergak nork ordaintzen dituen eta onura fiskalak nork jasotzen dituenaren arabera.¹⁰

Finantza politikaren funtzioetako bat sarreren birbanatzea da, zera da, baliabideak eskualde, ekonomia sektore edota baliabide gehiago dituen populaziotik, gutxiago duenera eramatea. Eta horrela, desberdinkeriei aurre egiteko tresna funtsezkoa da. Finantza sistemak desberdintasun ekonomikoen eta eskubideen asetzean duen eraginaren arabera progresibo edo erregresibo gisa kalifika daitezke.¹¹

Finantza-sistema progresiboek zerga-karga handiagoa ezartzen dute zerga-gaitasun handiagoa dutenengan. Sistema erregresiboek aldiz, alderantziz, zerga-karga handiagoa gaitasun txikiagoa dutenengan jartzen dute. Eta gastuen egitura ere aurrerakoia edo atzerakoia izan daiteke, estatuak biztanleria osoaren eskubideak bermatzen dituen, edo ostera baliabide ekonomiko gehiago dituztenen eskubideak bermatzen, eta beraz desberdinkeriak indartzen dituenaren arabera, hurrenez hurren.¹²

Autore ezberdinek adierazten duten bezala,¹³ finantza sistema ezinbesteko tresna da genero berdintasun efektiboa lortzeko. Politika publikoen egituraketak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzera lagundu dezake. Baina genero

⁹ COELLO, I., SALAMANCA, G. (2014), 5. orr.

¹⁰ *Ibidem*

¹¹ *Ibidem*

¹² *Ibidem*, 6. orr.

¹³ CALVARRO, J. M. D. (2017), MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., DE LA FUENTE, M. (2016)

ikuspeirik gabeko politikek emakumeen pobrezia egoera indartu dezakete.¹⁴ Politika fiskalak emakumeen emantzipatzeko gaitasunari eragiten dio.¹⁵ Eta baliabide ekonomiko ezak harreman zuzena du genero indarkeriarekin, indarkeria egoeretatik askatzeko zailtasuna eragiten dielako emakumeei, erasotzailearekiko menpekotasun ekonomikoa izateagatik, alegia.

Finantza sistema ortodoxoen agerpena eta hedapena, desberdintasunei aurre egiteko tresna funtsezkoa eta positiboa izan da. Sistema ortodoxotzat jotzen dira zerga progresiboak, diru-laguntza unibertsalak eta hezkuntza, osasun eta menpekotasunerako zerbitzu publikoak ezartzen dituztenak. Baina era berean, sistemek berek ere diskriminazio berriak sortu dituzte, lanaren sexu-banaketa ohikoa zen etapa historikoan sortu direlako eta, beraz, hori bera islatzen eta indartzen dutelako. Finantza sistemek horrela, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria indartzen duten arauak jasotzen dituzte eta emakumeen zaintzaile rol-a indartzen dute.¹⁶

2.2. Finantza sistema eta genero-ikuspegia

Gaur egun ezagutzen ditugun finantza sistemak denbora luzez hartzen joan diren erabakien emaitza ditugu, elementu askoren eraginaz eraiki dira, besteak beste, gizarte jarreraren eraginaz. Ondorioz, finantza sistema askok genero kutsua gordetzen dute; gizon eta emakumeei tratu desberdina ematen diete, eta eragin negatiboa izan dezakete lan egiteko erabakian, kontsumo pertsonaleko ohituretan eta betebeharrak fiskaletan. Testuinguru honetan, halabeharrez, Ekonomia feministak zalantzan jartzen du gure - finantza-sistemak herritar guztien beharrezko erantzuten dienik.¹⁷

Horregatik diru-sarreraren eta gastu publikoaren berrikusketa genero-ikuspegitik egitea ezinbestekoa da, emakume eta gizonen benetako premiei erantzuten dien estrategia publikoaren plangintza egiteko. Eta emakumeengan eragin negatiboa duten politika publikoen elementuak hautemateko.¹⁸

¹⁴ CALVARRO, J. M. D. (2017), 1. eta 3. orr., MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., DE LA FUENTE, M. (2016), 7.orr.

¹⁵ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., DE LA FUENTE, M. (2016), 5. orr.

¹⁶ PAZOS, M. (2021), 159. orr.

¹⁷ LIMA, M. I. (2017), 2. orr,

¹⁸ *Ibidem*

Autore asko bat datoz, egungo finantza sistemek genero-desberdinkeria inplizituak gordetzen dituztenaren ideiarekin, desberdinkeria esplizituak izateari utzi dioten arren.¹⁹ *Oxfam*-en ikerlan txosten batek (2019) ondo bereizten dituenez, genero-desberdinkeria esplizitua finantza-arauek emakume eta gizonen tratu bereizia jasotzen dutenean ematen da. Eta desberdinkeria inplizitua arauek emakume eta gizonentzat ondorio ezberdinak sortzen dituztenean ematen da, gizartean dauden genero-desberdinkeriak ez direlako aintzat hartu sistema eraiki denean, eta beraz gizonentzat abantailak sortzen dituzte.²⁰

Maria PAZOS MORANek (2010) adierazten duenez neutroak diruditen finantza politikek genero-desberdinkeriak jasotzen dituzte, lanaren sexu-banaketa indartzen dutelako, edo nagusiki emakumezkoenak diren taldeen premiei erantzuten ez dietelako.²¹ *Oxfam*-en lan dokumentu batek (2014) ere, finantza politikek lanaren sexu-banaketa indartzen dutenaren ideia jasotzen du, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak indartzen dituztela gehitzen du, horrela, emakumeen garapenerako oztopoa dira.²²

Finantza sistemak ez dira neutroak generoari dagokionean, gizarte-antolamenduaren kontzepzio jakin batekin egituratu direlako. Finantza sistemaren diseinuak sistema patriarkala iraunaraztera lagundu dezake familia tradizionalaren eredua (gizon sustentatzailea/emakume zaintzailea), genero-rolak eta lanaren banaketa sexuala sustatuz.²³

DÍAZ CALVARRO-ren (2017) hitzetan, finantza sistema espainiarra ez da neutrala, eta horregatik emakumeei zuzendutako erabakiak hartzen dira, “ekintza positiboko neurriak” izena hartzen dutenak, edo genero berdintasuna lortzeko neurri gisa saltzen direnak. Egileak azaltzen du lege eta erakunde askoren egitura eredu maskulino bati jarraituz eraiki direla. WILLIAMS-entzat konponbidea arau hauek ezabatzea litzateke, baina ohikoena konpentsazio-estrategiak hartzea izaten da, ekintza positiboko neurritzat hobe ezagutuak.²⁴

Ekintza positiboko neurriak emakumeak gizonen maila berera hel daitezela bilatzen dute. Gizonen eta emakumeen berdintasunaren kontrakoak diren oztopoak ezabatzea

¹⁹ COELLO, I., SALAMANCA, G. (2014) 1 eta 8. orr., PAZOS, M., ... MEDIALDEA, B. (2010) 7. orr., PAZOS, M. (2021), 160. orr

²⁰ ITRIAGO, D., & RODRÍGUEZ, C. (2019), 10. orr.

²¹ PAZOS, M., ... MEDIALDEA, B. (2010), 7. orr.

²² COELLO, I., SALAMANCA, G. (2014), 4. orr.

²³ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 5. orr

²⁴ CALVARRO, J. M. D. (2017), 3. orr.

dute helburu, behar duten kolektiboei lehenetsuneko tratua emanaz. Baina ez da gai baketsua, Espainiar Konstituzioko berdintasunaren printzipioaren (14. art.) aurkakoak direla defendatzen dute batzuek. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak (KAE 75/1983, abuztuak 3, eta KAE 166/1989, abenduak 13) behin baino gehiagotan adierazi du, emakumeentzat mesedegarriak diren neurri hauek “talde baten aurkako desberdinkeria historiko, sistematiko eta hedatuarekin amaitzeko, eta benetako berdintasuna bilatzeko” ezartzen badira, Botere Publikoen “askatasuna eta berdintasuna sustatzeko” zereginean (EK 9.2 art.) barne biltzen dela, eta beraz zilegiak direla.²⁵

Baina PAZOSek (2009) planteatzen duenez politika hauekin ez da emakumeengan arretarik jartzen ez duten gainontzeko aurrekontuaren partidei aurre egitea lortzen. Eta, zertarako balio du berdintasunerako aurrekontu berezia ezartzea, aurrekontuaren gainerako 99,9-ak ez baditu emakumeak aintzat hartzen? Ez du zentzurik berdintasun-politika espezifikoek hitz egiteak; izan ere, zer izango lirateke gainerako politikak? Politika guztiek berdintasunekoak izan behar dute. Ez da ulertzen berdintasuna sustatzeko aurrekontu berezia egotea, bestela, gainerako aurrekontuaren helburua zein izango litzateke, desberdinkeria sustatzea?²⁶

Pekingo Kongresuan, gogoeta-prozesu baten ondorioz, eta batez ere Suediar feministen proposamenaz “*Mainstreaming*” estrategia sortu zen. Honekin politika publikoen korrante nagusiari begirada ematea bilatzen da. Ideia nagusia politika publikoak neutralak direna zalantzan jartzea da, eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunean eginkizun erabakigarria dutela agerian uztea.²⁷ Nazio Batuen Pekingo Emakumeari buruzko laugarren mundu-bilera honetan, 1995ean, “*mainstreaming*” delako honekin, gobernu eta gainerako erakunde guztiei genero-ikuspegi integratzeko galdatzen zaie politika eta programa orotan.²⁸

Europar Batasunean “*gender mainstreaming*”-a genero-berdintasuna lortzeko tresna nagusi gisa finkatzen da 1997ko Amsterdamgo Itunaz geroztik, eta erkidegoko politika publikoak bideratzeko ikuspegi ofizialtzat ezartzen da. Espainian, estatu mailan *mainstreaming* estrategia jasotzen duen lehenengo araua 3/2007 Lege Organikoa da, transbertsalitatea nahitaez bete beharreko printzipio gisa jasotzen duena.²⁹

²⁵ *Ibidem*, 12-13 orr.

²⁶ PAZOS, M., (2009), 12. orr.

²⁷ *Ibidem* 11. orr.

²⁸ LIMA, M. I. (2017), 25. orr.

²⁹ *Ibidem*

Europako Kontseiluko adituen taldeak, 1998an horrela azaldu zuen *mainstreaming* estrategiaren esanahia: "Genero-mainstreaminga prozesu politikoen antolaketa (berrantolaketa), hobekuntza, garapena eta ebaluazioa da, genero-berdintasunaren ikuspegia politika guztietan, eta maila eta etapa guztietan txertatuz, politika-neurriak hartzen dituztenen eskutik".³⁰

Honekin guztiarekin beraz, finantza-sistematik genero indarkeria pairatu duten emakumeei laguntzak emateko ezar daitezkeen aurrekontu neurriak aztertzea ez ezik, genero-desberdinkeria sortzen duten araei begiratzea ezinbestekoa zaigu, aurrekontura zuzendutako arauak, bai eta zerga-bilketa gauzatzearen ardura dutenak ere.

3. Estatuaren eta Foru Ogasunen eskumena finantza sisteman

Espainiako estatuaren finantza sistema estatuak bai eta foru ogasunek ere arautzen dute. Horrela, finantza-lege anitzak sortzen dira eskua artean dugun finantza sistemaren gaiari dagokionean. Horregatik, lehenik eta bat, bi hitzetan finantza sistemaren gaineko eskuduntza zehaztea komeni da. Espainiar estatuaren antolakuntza sistema dela eta, gaiaren arabera eskudunak izan daitezkeen erakunde ezberdinak ditugulako.

Espainiako Konstituzioko 149. artikulua, estatuaren eskuduntza eskusiboak jasotzen dituena, Ogasun orokorra eta Estatuaren zorra estatuaren gai eskusibo gisa ezartzen ditu. Hala ere, Autonomia Erkidegoek ogasunari dagokionean eskuduntzak izan ditzaten espazioa uzten du: Konstituzioko lehen xedapen gehigarriak jasotzen du lurralde forudunen eskubide historikoak babesten eta errespetatzen dituela, eta erregimen forala Konstituzioaren eta autonomia-estatutuetan garatuko dela.

Aurreko xedapenean oinarrituta garatzen den Euskadiko Autonomia Estatutuak, ezartzen du Euskadik berezko Ogasun Autonomoa izango duela (40. art.). Eta Estatuaren eta Euskadiren arteko harremana finantza sistemari dagokionean Kontzertu Ekonomikoaren eta hitzarmenen bitartez arautuko da (41.1. art.).³¹

³⁰ CONSEJO DE EUROPA (1999), "Mainstreaming de género. Marco conceptual, metodología y presentación de "buenas prácticas". Informe final de las actividades del Grupo de especialistas en mainstreaming" *Madrid: Instituto de la Mujer, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Serie documentos, número 28. Hemen ikusia: LIMA, M. I. (2017), 26. orr.*

³¹ 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa

Estatutuan biltzen diren lurralde historikoen eskumenen artean, lan honetarako interesatzen zaizkigunak, zerga eremuari dagozkionak, labur esanda, honakoak dira:

- Lurralde Historikoetako erakundeek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arau dezakete, betiere Estatuko zerga-egitura orokorraren errespetuaz (41.2.a. art.),
- Lurralde historikoetan foru aldundiek zergak bildu eta kudeatuko dituzte, estatuaren lankidetzaren eta goi-ikuskaritzaren kalterik gabe (41.2.b. art.)
- Euskadiko aurrekontuak Eusko Jaurlaritzak prestatu eta Eusko Legebiltzarrak onartuko ditu eta, jarduera publiko orokorraren diru-sarrera eta gastuak hartuko dituzte (44. art.).

Bestetik, Kontzertu Ekonomikoak finantza eremuan lurralde historikoen eskumenak garatzen ditu.³² Kontzertu Ekonomikoari begirada bat emanez, argi geratzen da Lurralde Historikoen zerga-sistema arautzeko eta kudeatzeko eskumena estatuaren sistemarekiko mantendu behar duen loturagatik oso baldintzatuta dagoela. Zera da, ez duela bere kabuz arautzeko eskumen zabalik, ezin baita estuaren zerga arauditik urrundu.

- Kontzertuaren 2.1.2 artikulua araberan lurralde historikoen finantza sistemak Estatuaren zerga egitura orokorrari jarraitu behar dio.
- Eta 3. artikulua lurralde historikoen eskumenaren mugak jasotzen ditu: honi jarraiki lurralde historikoen araudia zerga arau orokorrari egokitu behar zaio terminologia eta kontzeptuei dagokionean, Estatuaren zerga-karga berdina jaso behar du orokorrean, bai eta jardueren sailkapen bera era.

Lan honetan aurrerago aztertuko diren zergei dagokionean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEGZ) eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), honakoa xedatzen du kontzertuak:

- PFEGZ araudi autonomoko zerga itundua da, eta bere ordainarazketa foru aldundi eskudunari dagokio (6.1. art.).
- BEZa arau itundua da, baina Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalei jarraitu beharko die. Lurralde historikoek beren aitortpen

³² 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa

ereduak arautuko dituzte, sarrera-epeak zehaztu ahal izango dituzte, baina ezingo dira Estatuko Administrazioak ezarritakoen oso bestelakoak izan.

Gauzak horrela, hurrengo orrietan, aurrekontuek eta zergek jasotzen dituzten genero desberdinkerien azterketan, Estatuko araudiari bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren araudiari ere erreparatuko zaizkio. Funtsean oso antzekoak badira ere zenbait aldaketa eman daitezkeelako. Horrela, erabiliko den bibliografia estatuaren sistemari buruzkoa den arren, Bizkaiko araudiari ere estrapola diezaiokegu, bi sistemen ezberdintasunak ez baitira oso handiak.

4. Desberdinkeriak konpontzeko aurrekontu neurriak

Atal honetan genero indarkeriaren biktimei ematen zaizkien diru laguntzak eta genero-berdintasuna sustatzeko aurreikusten den aurrekontuari erreparatuko zaio, baina ez naiz honetan luze ibiliko, hurrengo ataletan jasotzen diren desberdinkeria aurrekontu neurriak hobeto aztertzeko.

4.1. Genero Indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaizkien diru-laguntzak

Arestian esan bezala, emakumeen baliabide ekonomiko eza arazo handia izan daiteke genero indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Indarkeria burutzen duen gizon horrenganako menpekotasun ekonomikoak emakumearen egoera areagotu dezake, zailagoa zaiolako egoera horretatik irtetea. Sostengatzailearengandik (erasotzailea) banatuz gero pobrezia ekonomiko egoeran geratuko baita. Horregatik genero indarkeria jasan duten emakumeei, indarkeria egoera horretatik ateratzen laguntzeko eta beren independentzia ekonomikoa bai eta gizarte-inklusioa errazteko, diru-laguntzak aurreikusten dira.

1/2004 Lege Organikoak 2.e artikuluan ezartzen du genero indarkeria biktimei eskubide ekonomikoak bermatu beharko zaizkiela, beren gizarte inklusioa errazagoa izan dadin. Horrela, bai estatuaren zein foru ogasunen aurrekontuek genero indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko zenbatekoak aurreikusi beharko dituzte.

Lege Organikoaren 27.artikuluan, emakumeei emango zaien ordainketa bakarreko laguntza ezartzen da. Laguntza hau honako egoera ekonomikoan dauden emakumeentzat aurreikusten da: hileko zenbaketan, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta, lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 75 baino errenta

handiagoak ez dituztenak, betiere uste bada beren adina, prestakuntza orokor edo espezializaturik eza eta gizarte-inguruabarrak direla-eta, biktimak zailtasun bereziak izango dituela enplegua lortzeko, eta, horregatik, ez duela parte hartuko laneratzeko ezarritako enplegu-programetan (27.1. art.). Laguntzaren zenbatekoa langabezia-sorospenerako sei hilabeteren baliokidea izango da. Edo %33tik gorako desgaitasuna duten emakumeen kasuan langabeziagatiko hamabi hilabeteko sorospeneren baliokidea (27.2. art.). Eta biktimak familia-kargak dituenean, laguntzaren zenbatekoa 18 edo 24 hilabeteko sorospeneren baliokidea izan daiteke (27.4. art.).

Euskal Autonomia Erkidegoan urtero milioi bat euro inguru aurreikusten dira genero-indarkeriaren biktimak laguntzeko, 2022ko EAEko aurrekontu orokorraren %0.007a. 11/2021 Legeak jasotzen baitu EAEko 2022rako aurrekontua 13 milioi euro baino gehiagokoa dela.

Dirulaguntza jaso ahal izateko emakumeei zenbait baldintza betetzea galdatzen zaie: erasotzailearekin harremana amaitu izana, genero indarkeria izaeraren ziurtagiria edukitzea, EAEn erroldatuta egotea, langabezia egotea, ez laguntza hau, ez eta genero-indarkeriaren biktimentzako Gizarteratze Aktiboko Errenta jaso ez izana, Gizarte Segurantzarekin eta foru ogasunarekin zorrik ez izatea eta gehieneko diru-sarrerren muga (indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren %75ari dagokiona, aparteko bi ordainsariri dagokien zati proportzionala kontuan izan gabe) ez gainditzea.

Emakumeak familiakoak edo adingabeak ardurapean edukitzekotan edo desgaitasunik izatekotan zenbateko ezberdinak jasoko dituzte:

	Emakumea, bere ardurapean inor ez duena	Emakumea, familiako edo adingabe bat ardurapean duena	Emakumea, familiako edo adingabe bi ardurapean dituena
Desgaitasunik ez duen emakumea	2.556 €	5.112 €	7.668 €
% 33 edo gehiagoko desgaitasuna duen familiako edo adingabe bat ardurapean duen emakumea		7.668 €	10.224 €
% 33 edo gehiagoko desgaitasuna duen emakumea	5.112 €	7.668 €	10.224 €
% 33 edo gehiagoko desgaitasuna duen emakumea, % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duen familiako		10.224 €	10.224 €

edo adingabe bat duena bere ardurapean			
% 65 edo gehiagoko desgaitasuna duen emakumea, % 65 edo gehiagoko desgaitasuna duen familiako edo adingabe bat duena bere ardurapean.		10.224 €	10.224 €

Taularen iturria: euskadi.eus³³

Eta emakumeei ematen zaizkien laguntza hauek ez ezik, aurrekontua galdatzen duten bestelako neurriak ere ezartzen dira, hala nola, etxebizitza eta abegi-zentroei neurriei, laguntza psikologikoari, justizia baliabideei, polizia-zerbitzuei, etab.

4.2. Berdintasun politiketarako aurrekontua

Genero indarkeriari ez ezik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeari ere aurrekontu partidak eskaintzen zaizkio. Aurrekontu orokorrek, estatuarenak zein autonomia erkidegoenak, berdintasun-sailentzako partida bereziak ezartzen dituzte. Baina ez da gai baketsua. Berdintasun sailei eta berdintasuna sustatzeko neurriei berariazko partidak eskaintzen zaizkienean kolokan geratzen baita aurrekontuaren gainerako zenbatekoak ez ote duen berdintasuna sustatzen, edo are gehiago, desberdinkeria sustatzen ote duen.

Aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik egiten dituzten lan gero eta gehiago daude. Aurrekontu partida guztien azterketa burutu (ez bakarrik berdintasun sailaren aurrekontua) eta partida guztiek genero kontuan duten eragina aztertzen dutena. Baina lan oso bat egiteko gaia litzateke hau, eta beraz, oraingoz kontu hau bertan behera utzi eta lan honi dagozkion gaiei jarriko zaie arreta hurrengo orrietan.

³³ Euskadi.eus: "Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako dirulaguntzak"

5. Desberdinkeria sortzen duten aurrekontu neurriak: Estatua eta Bizkaiko Foru Ogasuna

5.1. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (PFEGZ)

A. PFEGZri buruzko orokortasunak

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga zerga-sistemaren bizkarrezurra dugu, zergadunak zergaldian zehar lortutako errenta guztiak zergapetzen ditu.³⁴ Pertsonak lortzen dituzten lanaren etekinak, ekonomia jardueren etekinak, kapitalaren etekinak eta ondare irabazi eta galerak zergapetzen ditu.

Izaera pertsonaleko zerga da, pertsona fisikoen errentak beren egoera pertsonal eta familiarak kontuan izanik zergapetzen dituelako, eta zergak duen irismena kontuan hartuta eta zergaren subjektu pasiboa herritarra bera izanda, berdintasuna lortzeko tresna eraginkorrenetarikoa da.³⁵ Baliabide gehien biltzen dituen zerga da eta familia-politikak bideratzeko erabiltzen diren baliabide gehienak jasotzen dituena.³⁶

Espainiar finantza sistemaren tresna garrantzitsuenetarikoa da, baliabideak biltzeko duen ahalmenarekin eredu sozial justu eta berdinzalea ezartzea ez ezik, kutsu negatiboa gordetzen duten familia-politikak bideratzeko tresna funtsezko gisa erabili daitekeelako.³⁷

Gaur egun indarrean dagoen PFEGZ Espainiar Estatuko lurralde komunean azaroaren 28ko 35/2006 Legea da. Bizkaiko foru-ogasunean 13/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, dago indarrean³⁸

B. PFEGZn, desberdinkeria sortzen duten elementuei bideratzen den aurrekontua

PFEGZk baina, berdintasuna lortzera laguntzea baino, zeharkako genero kutsua gordetzen duten neurriak jasotzen ditu:

³⁴ CALVARRO, J. M. D. (2017), 15. orr.

³⁵ LIMA, M. I. (2017), 6. orr.

³⁶ PAZOS, M., ... MEDIALDEA, B. (2010), 124. orr.

³⁷ LIMA, M. I. (2017), 50. orr.

³⁸ PAZOS, M. (2021), 164. orr.

- Baterako-aitorpenaren figurarekin, errenten bigarren hartzaillearen errentei (orokorrean emakumeenak) dagozkien zerga-tasa altuagoak aplikatzen zaizkie; familia-eredu tradizionala indartzen duen mekanismoa da, ez baitu emakumeak lan-merkatuan sartzea sustatzen; emakumeek zenbait txikipen balia dezatela galarazten du; eta guraso biko familiak hobesten ditu, guraso bakarreko familiak baino. Hau guztiori hurrengo orrietan aztertzen da.
- Eta legeak jasotzen duen amatasunagatiko kenkariak ere etxean zaintzaz arduratzen gelditzeagatik ekonomikoki mendekoa den emakumearen ideia iraunaraz dezake.

Legeak jasotzen dituen figura hauentzat gastu publikoaren zenbateko garrantzitsu bat erabiltzen da urtero. Estatuko memoria-fiskalaren arabera 2022rako jasotzen den baterako aitorpenagatiko onura fiskala 964.43 milioi eurokoa da, onura fiskalen egituraren %2,3koa, altuenetarikoa. Eta Amatasunagatiko kenkariagatiko onura fiskalaren zenbatekoa 1.005,16 milioi eurokoa, %2,4koa.³⁹

Beraz, genero-desberdinkeria sortzen duten, eta kezkagarriak diren, aurrekontu neurri hauen azterketari ekingo zaio:

a) Baterako aitorpena

Baterako aitorpenak ezkontideen errentak batu eta familia unitateko aitorpen bakarra aurkeztean datza, eta honek baterako aitorpenagatiko desgrabazioa ezartzeko aukera ematen du. Mekanismo honen esplizituki aitortutako asmoa da zergaren progresibitatearen eragina errenta altuak dituzten pertsonentzako arintzea diru-sarrerarik gabeko edo gutxiko ezkontidea dutenean.⁴⁰ Zera da, errentak jasotzen ez dituen ezkontidea, gehienetan emakumea, duten familien zerga karga hobestea.⁴¹

Ekintza Komunitarioko Programa Berriaren 6. Ekintzak (1982-1986) zerga-legeriaren berrikustea proposatu zien familia-unitatearen errendimenduak modu agregatuan zergatzen zituzten estatuei, eta banakako aitorpena ezartzeko gomendioa eman zuen.

³⁹ Presupuestos Generales del Estado: Memoria de beneficios fiscales para el año 2022 (2022) 287. Orr. https://www.sepg.pap.hacienda.gob.es/Presup/PGE2021Proyecto/MaestroTomos/PGE-ROM/doc/L_21_A_A2.PDF

⁴⁰ PAZOS, M. (2013), 110. orr.

⁴¹ CARVAJO, D. (2009), 90. orr.

Baterako aitorenak emakume ezkonduak lan-merkatuan sartetik galarazten dituelako.⁴²

Europako Batzordeak, Gizon eta Emakumeen Aukera Berdintasunerako Ekintza Komunitarioko Lehen Programak (1988-1990), "Eskubide sozial eta fiskalak indibidualizatzea" aipatzen du bere lehentasunezko helburuen artean, "gizon eta emakumeek subjektu independente gisa jardun ahal izateko lana bilatzeko eta lana eta familia uztartzeko orduan, sexuan oinarritutako bereizkeria saihesteko."⁴³

Eskubideen indibidualizatzea emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunean aurrerapauso handia izango litzateke. Eskubide indibidualik ez egoteak ostera, emakumeak lan-merkatuan sartzea galarazi dezake.⁴⁴ PFEGZren joera orokorra errenten indibidualizazioarena da⁴⁵

Auzitegi konstituzionalak nahitaezko baterako aitoren konstituzio-kontrakoa aitortu zuen. Auzitegiak 45/1989 Epaian aitortzen du baterako aitorenak gordetzen duen emakumearen eta familiaren ikuskera ez datorrela bat egungo konstituzio sistemarekin. Epaiaren arabera ezkontideen arteko berdintasuna kolokan legoke etxetik kanpo lan egiteko erabakia zerga-arauak dituen ondorio ekonomikoen baldintzapean egotekotan. Eta zalantzarik gabe baterako aitorenak bigarren errenta jasoko lukeenaren (gehienetan emaztea) etxetik kanpo lan egiteko erabakia ezesten du.⁴⁶

Geroztik baterako aitoren hautazkoa da (83.1. art. LKA; 97.1. art. FA). Eta Lurralde Komuneko Araudiak hitzaurrean bertan aitortzen du "generoagatiko diskriminazio ezaren politikak baterako aitorenaren berrikuspena justifika lezakeela. Hala ere senar-emazteek lan-merkatu sartzetik ez duten eta, beraz, ezkontideetako batek bakarrik etekinak lortzen dituen ezkontzetan kaltetu ugari saihesteko mantendu egiten da".⁴⁷

Lurralde Komuneko Araudiak (PFEGZ 25/2006) zein Bizkaiko Foru Arauak (13/2013 FA), xedapen berak jasotzen dituzte, 82-84 eta 97-99 artikuluetan hurrenez hurren, baterako aitorenari dagokionean. Ezberdintasun bakarrarekin: familia-unitateari dagokiona. Bizkaiko Foru Arauak izatezko bikoteek baterako aitoren egitea onartzen du (98.1. art. FA), lurralde komunean ostera izatezko-bikoteen kasuan, bikotekideek

⁴² LIMA, M. I. (2017), 6. orr.

⁴³ DE VILLOTA, P., HERRERO, I. F. (2001) 1. orr.

⁴⁴ *Ibidem*, 2. orr.

⁴⁵ PAZOS, M., ... MEDIALDEA, B. (2010), 124. orr.

⁴⁶ CUBERO, A. M., JIMÉNEZ, M. D. M. (2012) 93. orr.

⁴⁷ CALVARRO, J. M. D. (2017), 15. orr.

ezin dute familia-unitatea osatu, bikotekideetako batek familia-unitatea, seme-alaba, adin txiki edo ezgaituekin osatu dezake (82.1.2. art. LKA), eta beste bikotekideak banakako aitortpena aurkeztu beharko du.

Edozein dela ere familia unitatea, baterako aitortpenari dagozkion gainerako xedapenak berdi-berdin aplikatzen dira:

Familia unitatea osatzen duten kideek baterako aitortpena egitea erabaki dezakete edozein zergalditan, familiako kide guztiak zerga honen zergadunak direnean. Baterako aitortpenaren aldeko hautuak ez ditu zergadunak hurrengo zergaldietarako lotuko, hau da, zergadunek hurrengo zergaldietan ez dute baterako aitortpena egiteko beharrik. Baterako aitortpena familia-unitateko kide guztiak hartu beharko ditu barne, kideetako batek aitortpen indibiduala aurkeztekotan, gainerako kideek sistema berdina erabili beharko dute. Baterako aitortpena hautatuz gero, ezin izango da aldatu zergaren aitortpena egiteko borondatezko epearen barruan. Eta zergadunek ez badute autolikidaziorik aurkezten, banaka tributatuko dutela ulertuko da.⁴⁸

Baina figura honek, baterako zergatzeak, eragin negatiboa du genero kontuan jarraian azalduko diren faktoreengatik:

- **Etekinen pilotzea**

Baterako aitortpenetan zerga-kuota kalkulatzeko, legean banakako aitortpenerako jasotzen diren arau orokorrak aplikatzen dira (84.1. art. LKA; 99.1. art. FA). Banakako tributaziorako finkatutako zenbatekoak neurri berean aplikatuko dira, baterako aitortpena aurkezten dutenen familia-unitateko kide kopuruaren arabera handitu edo biderkatu gabe (84.2. art. LKA; 99.2. art. FA). Mekanismo honi etekinen pilotzea deritzogu. Zera da, familia-unitatean jasotzen diren errenta guztiak batu egiten dira, eta legearen arau guztiak batura horri aplikatzen zaizkio. Txiki penak, kenkariak, hobariak, zerga-tasa, etab, behin bakarrik aplikatzen dira, aitortpen bakoitzeko.

Baterako aitortpenean beraz, zerga-tasa familia-unitateko kide guztien errenten baturari aplikatzen zaio, banakako aitortpenean erabiliko litzatekeen karga-tasa bera erabiliz. Eta zerga progresibo batez ari garenez, errenta zenbat eta altuagoa izan, orduan eta altuagoa izango da karga-tasa. Horrela, errenten bigarren jasotzaileari aplikagarria izango zaion zerga-tasa gehiegizkoa izango da, ez baita jasotzen dituen errentengatik

⁴⁸ LIMA, M. I. (2017), 51. orr.

aplikatuko litzaiokeen zerga-tasa, familia-unitatearen errenten baturari aplikatzen zaiona baizik.⁴⁹

Errenten pilatzeagatik beraz, emakumeei aplikatzen zaizkien zerga tasak altuegiak dira. Emakumearen errenta baxua denean, zerga ordaintzetik salbuetsita legoke, baina senarraren errentei batzen zaizkionez, eta zerga-tasa batura horri aplikatzen zaionez, emakumearen errenta baino altuago den familia-unitatearen errentari dagokion zerga-tasa jasotzen du.⁵⁰ Zera da, bigarren errentaren jasotzaileak –gehienetan emaztea–, errenta nagusiari –gehienetan senarrarena– batzen zaio, eta beraz errenta nagusiaren zerga-tasa jasotzen du, horrela dagokion zerga-tasa altuago batekin zergapetzen da.⁵¹ Gehiegizko zerga-tasa honi ezkontzagatiko zigorra deritzo.⁵²

Ezkontide bakoitzak banakako aitorpena aurkeztekotan, bakoitzari dagozkion zerga-tasak aplikatuko litzaizkioke. Baina kasu horretan, jarraian aztertuko den baterako aitorpenagatiko txikipena galduko lukete, eta zerga-karga handiagoa ordaindu beharko lukete. Horregatik, baterako aitorpenaren aldeko hautua egiten da. Horrela, emakumeen errentek jasotzen dituzten zerga-tasak altuak dira, eta honek emakumeen lan-merkatuan sartzeko erabakian eragin negatiboa du.

Egia da, PFEZGZk ez dituela emakumeak errenten bigarren jasotzaileak izatera behartzen, eta beraz ezin da genero kutsu esplizituzat jo, baina agerikoa da normalean emakumeak direla egoera honetan daudenak.⁵³ Baterako-aitorpenen guztizkoaren %90an hain zuzen, errenten jasotzaile nagusia gizona izaten da⁵⁴.

⁴⁹ *Ibidem*, 417. orr.

⁵⁰ PAZOS, M. (2013), 112. orr.


⁵¹ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 51. orr

⁵² GUSTAFSSON, Siv (2005): "Impacto de género de los impuestos sobre la renta. Desincentivos al trabajo de las mujeres casadas producidos por la tributación conjunta", Política Fiscal y Género, *Instituto de Estudios Fiscales*. Hemen ikusia: MEDIALDEA, B., PAZOS, M. (2011) 113. Orr.

⁵³ CALVARRO, J. M. D. (2017), 16. orr.

⁵⁴ PAZOS, M. (2021), 160. orr.

Baterako-aitorpenetan errenten jasotzaile nagusia: emakumea edo gizona



Iturria: norberak egina PAZOSen (2021) adierazpenei jarraiki⁵⁵.

- **Baterako aitorpenagatiko txikipena**

Baterako aitorpenagatiko txikipena ekonomikoki mendeko ezkontidea zuten zergadunak babesteko ezarri zen, momentu horretan familia-eredu nagusia hura baitzen. Onuragarria da familia-unitatean etekinak jasotzen dituen pertsona bakarra dagoenean, edo bigarren batek errenta baxuak jasotzen dituenen. Bigarren errenta hori altua denean, txikipenagatiko zenbatekoa gainditzeko bestekoa, baterako aitorpena baino, banakako aitorpena izango da onuragarriena.⁵⁶

Baterako aitorpenagatiko txikipena Espainiako lurralde komunean bi gurasoko familientzat 3.400 eurokoa da (84.2.3. art. LKA), eta gurasobakarreko familientzat 2.150 eurokoa (84.2.4. art. LKA). Bizkaiko Foru Ogasunean txikipenak 4.347 eta 3.776 eurokoak dira, bi gurasoko familia eta gurasobakarreko familientzat hurrenez hurren (73. art. FA).

Ezkontideen (edo Euskadin izatezko bikoteen) baterako aitorpenaren ondorioz, gizonak (baterako aitorpenen %90an zergadun nagusia gizona da) diru sarrera propiorik ez duen edo gutxi dituen bikotekidea izateagatik, zergak arindu ditzakete. Baterako aitorpena aurkeztuta, zerga oinarrian baterako aitorpenagatiko txikipena aplikatu dezaketelako.⁵⁷ Emakume batek ere diru-sarrerarik ez dituen senarragatiko txikipena ere aplikatu

⁵⁵ *Ibidem*,

⁵⁶ LIMA, M. I. (2017), 254. orr.

⁵⁷ PAZOS, M. (2021), 160. orr.

lezake, baina praktikan ez da maiz ematen.⁵⁸ Espainian aurkezten diren baterako aitorpenetatik, %90ean etekin gabeko ezkontidea emaztea da.⁵⁹ Horregatik, txikipen honi “mendeko emaztea edukitzeagatiko txikipena” deritza.⁶⁰

Mendeko emaztea izateagatiko txikipenak beraz, zerga-kargaren murrizketa dakarkio diru-sarrerak dituen ezkontideari (orokorrean gizona), familiaren etekin garbiak altuagoak izateko. Arazoa, diru-sarrerarik ez dituen emakumeak lan egitea erabakitzen duenean ematen da, txikipena galdu egiten delako. Txikipena galtzeagatik, nahiz eta emakumea lanean hasi izan, familiaren diru sarrerak oso gutxi handituko dira, emakumeak enplegua onartu izanak ez dio familiari mesederik egingo.⁶¹

Familiarentzat onuragarritzat jotzen den mekanismo hau emakume ezkonduentzat tranpa bat da. Senarrarekiko mendekotasun ekonomikoa sustatzen du, emakumea lanean hasteak familiari etekin garbien galera dakarkiolako.⁶²

Demagun ordura arte diru-sarrerarik gabeko emakume bati 1.000 euro gordineko soldata eskaintzen zaiola, eta PFEGZ eta Gizarte Segurantzaren ekarpenak kenduta 800 euroko soldata garbia jasotzen duela. Diru-sarrera gehigarri honek baina, ezkontideek 300 euroko desgrabazioak galtzea eragiten du, eta horrela familiaren diru-sarrera garbia 500 eurokoa izango da. Emakumearen lanagatik geratzen den sarrera garbia txikia denean, familiak emakumearen soldatak dakarren aukera-kostua mesedegarria zaion planteatuko du, lanean hasiz gero gainera, etxeko ondasun eta zerbitzuak sortzeari utziko diolako, batez ere zaintza- eta etxeko-lanak.⁶³

Orduan, familia-unitatea bi errenta izatera pasako balitz, hau da, emakumeak lan egitea erabakiko balu, bigarren errenta honek zerga-onura hau indargabetuko luke, familia-unitatearen zerga-oinarria bigarren errenta honekin altuagoa izango delako. Eta gainera, banakako aitorpena egitekotan baterako-aitorpenagatiko txikipena galduko delako. Emakumearen soldata ez denean zerga-karga altuago hau orekatzeko bestekoa, emakumea lan-munduan sartzeko pizgarriak kenduko ditu. Eta horrela baterako aitorpenagatiko txikipenak genero kontuan eragin negatiboa sortzen du.

⁵⁸ PAZOS, M. (2006), 2. orr.

⁵⁹ PAZOS, M., ... MEDIALDEA, B. (2010), 124. orr.

⁶⁰ PAZOS, M. (2006), 8. orr.

⁶¹ PAZOS, M. (2013), 108. orr.

⁶² *Ibidem*, 109. orr.

⁶³ PAZOS, M. (2021), 163. orr.


- **Guraso bakarreko familiak**

Europako parlamentuak espresuki adierazi du lehentasuna eman behar zaiola guraso bakarreko familien egoera hobetzeari politika ekonomiko eta finantzieroen bitartez.⁶⁴ Baina arestian aipatutako baterako-aitorpenaren mekanismoak guraso bakarreko familiei tratu kaltegarria ematen die, guraso biko familientzako baino murrizketa txikiagoa ezartzen baitu.⁶⁵

Baterako aitortenagatiko txikipena Espainiako lurralde komunean bi gurasoko familientzat 3.400 eurokoa da (84.2.3. art. LKA), eta gurasobakarreko familientzat 2.150 eurokoa (84.2.4. art. LKA). Bizkaiko Foru Ogasunean txikipenak 4.347 eta 3.776 eurokoak dira, bi gurasoko familia eta gurasobakarreko familientzat hurrenez hurren (73. art. FA).

Honek generoari dagokionean eragin negatiboa du, gurasobakarreko familia gehien burutza emakumeen esku dagoelako.⁶⁶ Zerga-agentziaren datuei jarraiki, 2013an, guraso bakarreko familiek aurkeztutako baterako aitortenetatik %74,79an aitortenaren zergadun nagusia ama izan zen. Horregatik, gurasobakarreko familia baino, ama-bakarreko familia terminoa egokiagoa litzateke.⁶⁷

Guraso-bakarreko familien burutzan: gizonak eta emakumeak



Iturria: norberak egina, LIMAre (2017) adierazpenei jarraiki⁶⁸

⁶⁴ Resolución del Parlamento Europeo sobre la situación de las madres solas y las familias monoparentales Diario Oficial 12/10/1998. Hemen ikusia: LIMA, M. I. (2017), 65. orr.

⁶⁵ LIMA, M. I. (2017), 418. orr.

⁶⁶ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 52. orr

⁶⁷ LIMA, M. I. (2017), 65. orr

⁶⁸ LIMA, M. I. (2017), 65. orr

Familia mota bakoitzarentzat ezartzen den kenkariaren zenbatekoaren aldeak, ama-bakarreko familientzat tratu kaltegarria eragiten du bi gurasoko familien aldean, lehenengoak zerga gehiago ordaintzen baititu.⁶⁹ LIMAK frogatzen du, seme-alaba bat duen ama-bakarreko familia batek, ekonomikoki mendekoa zaion emaztea duen gizon batek baino zerga gehiago ordaintzen dituela, familia batentzat eta bestearentzat ezartzen den kenkariaren zenbatekoaren aldeagatik.⁷⁰

Eta honekin ondorioztatzen da, baliabide ekonomiko gehiago erabiltzen direla familia eredu tradizionala iraunarazten duen familia babesteko, eta beraz emakumeak lanik egiten ez duen ereduia sustatzeko, gurasobakarreko familien burutza daramaten emakumeak babesteko baino.⁷¹

- **Lanaren etekinaren hobaria**

Lanaren etekinaren hobaria, lan etekinengatiko zerga-karga murrizteko ezartzen den mekanismoa da:

PFEGZk zergadunaren lan pertsonaletik edo hark dituen lan-harremanetatik eratorzen diren diruzko zein gauzazko kontraprestazio eta onura guztiak lan etekintzat jotzen ditu, eta beraz, zergapetzen ditu (17.1. art. LKA; 15. art. FA). Lan etekin guztien baturak (legeak ezartzen duen eran) *lanaren etekin osoa* osatzen dute (18. art. LKA; 19. art. FA). Baina zerga-tasa aplikatzeko, lanaren etekin osoari *gastu kengarriak* (19. art. LKA; 22. art. FA) eta *lanaren etekinaren hobaria* (20. art. LKA; 23. art. FA) kendu behar zaizkio, eta orduan lortzen den *lanaren etekin garbia* zergapetu egiten da.

Lan-etekin garbia
(+) Lan-etekinak (guztiak edo portzentai batengatik konputatzen direnak)
(=) LAN ETEKIN OSOA
(-) Gastu-kengarriak
(=) X
(-) Lanaren-etekinaren hobaria
(=) LAN ETEKIN GARBIA

Iturria: norberak egina

⁶⁹ *Ibidem*, 429. orr.

⁷⁰ *Ibidem*, 425. orr.

⁷¹ *Ibidem*, 419. orr.

Beraz lan-etekinen hobaria, lan-etekinei zenbateko bat kentzeko eta beraz zergapetuko den zenbatekoa murrizteko mekanismoa da. Kasu bakoitzean aplikatuko den *lanaren-etekinaren hobaria: lanaren etekin osoari gastu kengarriak* aplikatuta lortzen den emaitzaren arabera izango da (aurreko taulako "X"). Emaitzaren arabera *lanaren-etekinaren hobariaren* zenbatekoa ezberdina izango da.

Lanaren atal honetan ez dira legeak ezartzen dituen hobarien zenbateko ezberdin guztiak adieraziko kasuan kasu ezberdinak izan daitezkeelako. Hobarien zifrak zehatz mehatz aipatzen dira lan honen 1. eranskinean. Atal honetan ordea, lanaren etekinaren hobariak emakumeengan duen eragin negatiboa adieraziko da.

LIMA PINILLAK (2017) hobarien zenbatekoekin eginiko simulazio batekin honakoa ondorioztatzen du: lanaren etekinen hobariaren figurak baterako aitortpena aukeratzen den kasuetan, emakumeak lan-mundura sartzeari galarazi dezakeela.⁷² LIMAK erabilitako zenbatekoak 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorren 6/2018 Legeak 59. artikuluan ezartzen dituen zenbatekoen aurretikoak dira. Baina ideiak, zenbakiak gora zenbakiak behera, berdina izaten jarraitzen du.

LIMA-ren (2017) arabera emakumea lanean hasteagatik familia-unitatearen etekinak gora egiten dutenean aplikagarria den lanaren etekinaren hobariaren zenbatekoa baxuagoa da. Horrela zerga-oinarriak, likidazio-oinarriak eta beraz zerga-kuotak gora egiten dute. Beraz, familia-unitatearen zerga kuota altuagoa izango da, etekin gehiago lortzea ez ezik, lanaren etekinaren hobariaren galeragatik.⁷³

Beste hitz batzuetan, emakumea lanean hasten denean familia-unitatearen guztizko sarrerak altuagoak izango dira. Eta zerga progresibo batez ari garenez, lan-etekinak zenbat eta altuagoak, izan, orduan eta txikiagoa izango da hobari aplikagarria. Honen ondorioa familia unitateak zerga gehiago ordaindu behar izatea izango da: lehena, errenta altuagoarekin zerga-kuota handitzen delako; eta bigarrena, errenta altuagoarekin aplikagarria zaien hobaria murriztagoa delako. Honek emakumearen lan-munduan sartzeko erabakia baldintzatzen du.

Gainera, kasu honetan ere, aurretik azaldutako errenten pilatzearen ondorioz, lan etekinengatiko hobaria behin bakarrik aplikatu ahal izango da. Hobaria aitortpen bakoitzeko aplikatzen da, eta ez errentak jasotzen dituen pertsona bakoitzeko. Horrela,

⁷² *Ibidem*, 213. orr.

⁷³ *Ibidem*, 253. orr.

emakumearen errentari, gizonaren errentaren gehituztat jotzen den heinean, ezingo zaio lanagatiko hobaria aplikatu, hobaria errenten baturari bakarrik aplikatuko zaio.⁷⁴

Baterako aitortenagatik sortzen diren mekanismo hauek guztiak ondorio negatiboak dituzte emakumeak lan munduan sartzerako orduan. Horrela emakumeak etxean gelditzea sustatzen da.⁷⁵ Horrek ekitate-arazo bat sortzen du bizi-zikloaren ikuspegitik: edozein arazoirengatik, emakumea bere mendeko sostengatzaileak mantentzeari uzten dionean, pobrezia- eta babesgabetasun-egoeran geldituko delako, enplegu bat izan balu sortu izan lituzkeen eskubide sozialak sortu ez dituelako, eta, kasu horretan, jada ez du etxeko-andre ohia izateagatiko desgrabaziorik edo prestazio berezirik jasoko.⁷⁶

Urtero baterako aitortenagatiko Estatuaren zein Autonomia Erkidegoen diru sarrerengalera aintzat hartzekoa da. 2021eko Memoria-Fiskalak jasotzen du baterako aitortenagatik 1.070 milioi euroko balioko txikipean eman zirela guztira. Txikipean guztietatik zabalenerikoa.⁷⁷ Baterako aitortena ezabatzeak beraz, genero kontuan eragin positiboa izan ez ezik, estatuaren sarrerengalderaren handipen nabaria ekarriko luke, benetako berdintasuna sustatzeko erabili litekeena.

b) Amatasunagatiko kenkaria

Genero-berdintasunari dagokionean PFEZtik nabarmendu beharreko beste aspektu bat, amatasunagatiko kenkaria dugu. Kasu honetan Lurralde Komuneke Arauari buruz arituko gara bakarrik, Bizkaiko Foru Arauak ez baitu honako kenkaria jasotzen.

Emakumea lan merkatuan jarrai dadila sustatzeko ezarri da.⁷⁸ Gehienetan seme-alaben zaintza emakumeek burutzen dutenaren aurrezagutzaz, eta beren laneko eta lanbideko itxaropenei uko egiten dieten egoerari aurre egiteko.⁷⁹ Baina figura honen eraginkortasuna zalantzan jartzen dute zenbait egilek.

Lurralde komuneke arauaren 81. artikulua xedatzen du "hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeek, Gizarte Segurantzako edo mutualitateko erregimenean alta emanda daudenean, norberaren edo besteren konturako jardura bat egiteagatik,

⁷⁴ PAZOS, M. (2006), 6. orr.

⁷⁵ PAZOS, M. (2013), 132. orr.

⁷⁶ *Ibidem*, 125. orr

⁷⁷ Presupuestos Generales del Estado: Memoria de beneficios fiscales para el año 2021 (2021) 116. orr.

⁷⁸ CALVARRO, J. M. D. (2017), 19. orr.

⁷⁹ IGLESIAS, M. (2017) 131. orr.

zergaren kuota diferentziala 1.200 euroraino murriztu ahal izango dutela urtean, hiru urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko”.

Autore askok neurriaren zenbateko ekonomikoa urria dela adierazten dute,⁸⁰ ez dela haurtzaindegien gastuak estaltzeko bestekoa ere. DÍAZek (2017) aztertzen du, onura fiskalak hiru urtetik beherako seme-alaben zenbakia handiagotzen denean gora egiten duenez, hiru urtetik beherako hiru seme-alaba edo gehiago izatekotan bakarrik hitz egin genezakeela benetako lan egiteko pizgarri batez, baina gaur egun ez da ohikoa.⁸¹

IGLESIASEk (2013) adierazten du kenkariaren zenbatekoak familiari likidezia-dosi bat ematen badio ere, zenbateko hori ezartzearekin lortu nahi den helburua betetzetik urrun geratzen dela. Bizitza-pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartzearen zenbateko ekonomikoa, kenkaria baino askoz altuagoa dela, eta horrela zalantzazkoa da neurri honek emakumea lan-merkatuan mantentzea sustatzen duenik. Horregatik, sustagarri gisa kalifikatzea baino, seme-alabak edukitzeagatiko sari gisa ulertzen da.⁸²

Bestetik legeak berak ezartzen duenez kenkaria emakumeari soilik dagokiola salbu eta amaren heriotza kasuetan edo umeen zaintza eta jagoletza aitari bakarrik esleitzen zaionean.⁸³ Horrela %90ean emakumeei esleitzen zaie.⁸⁴ Kenkariaren helburua amatasuna emakumeen lanbide- eta lan-karreran oztopoa izatea saihestea da. Hots, amatasuna eta enplegua elkarrekiko baztertzailak diren bi aldagai ez izatea. Alde batetik, emakumeen enplegu-politika publikoetan aurrera egin nahi da, eta, bestetik, amatasunari babes ekonomikoa eman. Oro har, emakume langileak kenkariaren onuradunak izatea, legegileak azaltzen duenez zerari zor zaio: seme-alabak eta enplegua batzea zaila suertatzen denean, normalean emakumea dela bere lan-espektatibei uko egiten diona, gizarteratzeak seme-alaben hazkuntzaren berezko zereginen arduradun handiena sentiarazten duelako.⁸⁵

Baina emakumeentzako kenkari gisa ezarri izanak, genero-ikuspegitik eragin negatiboa duela adierazi dute askok,⁸⁶ emakumeari esleitzen baitio zaintzailearen rol tradizionala.

⁸⁰ LIMA, M. I. (2017) 696. orr., PAZOS, M. (2006) 20. orr., PAZOS, M. (2013) 92. orr., PAZOS, M., ... MEDIALDEA, B. (2010)

⁸¹ DÍAZ CALVARRO, J. M. D. (2017), 21. orr.

⁸² IGLESIAS, M. (2017) 13.. orr.

⁸³ 35/2006 Legea, 81. artikulua

⁸⁴ LIMA, M. I. (2017), 695. orria

⁸⁵ IGLESIAS, M. (2017) 58. orr.

⁸⁶ CALVARRO, J. M. D. (2017), 22. orr.

Eta horrela gizarteari transmititzen jarraitzen zaio seme-alaben zaintza emakumeen, eta ez gizonen, kontua dela.⁸⁷

5.2. Biziarteko alargun pentsioa

Alargun pentsioa Espainian, erretiro pentsioa baino eskuragarriagoa den biziarteko errenta da. Adibidez, gazte batek (gizon edo emakume batek), inolako beharrian ekonomikorik edo familia-kargarik izan gabe, alarguntza pentsioa lor dezake bizi-tza osorako, azken 5 urteetan 500 egun kotizatu dituen pertsona batekin urtebetez ezkondua egon izanagatik bakarrik. Deigarria da alarguntza pentsioa eskuratzeko erretiro pentsioa eskuratzeko baino kotizazio gutxiago behar izatea.⁸⁸

Alarguntza pentsioa 1972an sortzen da, emakumeak lan egiteko gaitasunik gabeak eta ekonomikoki mendekoak direla ulertzen den testuinguruan. Orduan, ez zen emakumeak lan egitea, jarauntsiak jasotzea edo bankuko kontu korrontea edukitzea ahalbidetzen zuen Kode Zibilaren erreforma gauzatu ere egin. Gauzak horrela, ez zeuden aitarekiko edo senarrarekiko ekonomikoki independenteak ziren emakume askorik.⁸⁹ Eta 1974an aldaketa guzti hauek jaso zituen Kode Zibilaren erreforma burututa ere, alargun pentsioaren arauketak bere horretan dirau, 1983an gizonei alarguntza pentsioa jasotzea onartu, eta 2007an dibortziatutako pertsonen alarguntza jasotzetik baztertzea salbu.⁹⁰

Gainerako Europako herrialde gehienek biziarteko alargun pentsioaren arauketa aldatu dute, eta denboraldi baterako pentsio gisa ezarri dute. Espainian ostera biziarteko pentsio gisa mantentzen da, eta honek ez du emakumeen enplegurako (eta beraz ekonomikoki independenteak izateko) pizgarriarik sortzen. Aitzitik, sostengatzailearen (normalean gizonaren) heriotza kasuan biziarteko babesak jasoko denaren mezua helarazten da.⁹¹ PAZOSek (2013) hitz hauekin adierazten du biziarteko pentsio honek igortzen duen mezua: *"No te preocupes por adquirir cotizaciones propias, que si pasara lo peor (y perdieras tu fuente de ingresos, que es tu marido), quedarás protegida"*.⁹²

⁸⁷ PAZOS, M. (2013), 92. orr.

⁸⁸ PAZOS, M. (2021), 165. orr.

⁸⁹ PAZOS, M. (2013), 141. orr.

⁹⁰ PAZOS, M. (2021), 165. orr.

⁹¹ *Ibidem*, 166. orr.

⁹² PAZOS, M. (2013), 142. orr.

Egia da, gaur egun, gizonei pentsioa jasotzeko aukera ematen zaien heinean, ezin dela genero kutsu esplizitua duen neurritzat jo. Baina kontuan izan behar da, indar handia izaten jarraitzen duen, gizarte eredu tradizionalak ekonomikoki mendekoa den emakumea oinarri duela. Eta horregatik, PAZOSek adierazten duen bezala, gizon sostengatzailea/emakume zaintzailearen ereduari mesede egiten dion mekanismoa dugu.⁹³

PAZOS alargun pentsioaren “biziarteko” izaera indargabetzearen aldekoa da, atzeraeraginkortasunik gabe; eta ezkontide berrientzat eta adin batetik beherako pertsonentzat aukera hau denbora baterako neurri gisa ezartzea. Denborartekoak diren herrialdeetan frogatu baita, neurriaren behin-behinekotasunak beharrian egoeran babes eraginkorra ematea lortzen duela, baina epe luzean lan-merkatuan sartzera bultzatzen duela.⁹⁴

6. Desberdinkeria jasotzen eta sortzen dituzten diru-bilketa neurriak

Finantza sisteman, aurrekontu neurriek ez ezik, dirua biltzeko neurriek ere genero kontuetan eragina izan badute, esaterako zergek. Zergak finantza sistemen funtsezko elementuak dira, beren baitan Estatuaren “finantza espazioa” zehazten delako: hau da, Estatuak eskura dituen baliabide ekonomikoak. Eta denboran zehar diru-sarrera egonkorrak edukitzeko oinarria dira.⁹⁵

Zergak mota ezberdinetakoak izan daitezke, besteak beste zerga zuzenak edo zeharkakoak, pertsonalak edo errealak, subjektiboak edo objektiboak, aldizkakoak edo behin-behinekoak. Kasu honetan baliogarria zaigun bereizketa zerga zuzena eta zeharkakoena da. *Oxfam*-en lan dokumentu batek (2014) ematen duen azalpenari jarraiki, zerga zuzenak aberastasun-iturrian, jabetzan edo errentan ezartzen dira zuzenean. Eta zeharkako zergek jarduera ekonomikoak zergapetzen dituzte, hala nola ondasun edo zerbitzuen kontsumoa, erabilera edo transmisioa, ekoizpena, edo merkaturatzea. Hau da, ez dute pertsonen zerga-gaitasuna kontuan hartzen.⁹⁶ Edo

⁹³ *Ibidem*, 143. orr

⁹⁴ *Ibidem* 165 eta 250 orr.

⁹⁵ COELLO, I., SALAMANCA, G. (2014), 5. orr.

⁹⁶ *Ibidem*

sinpleago esanda, zerga zuzenek ahalmen ekonomikoa zergapetzen dute eta zeharkako zergek kontsumoa.⁹⁷

Espainiar estatuan dauden zeharkako zergak Balio Erantsiaren gaineko Zerga, alkoholaren, edari alkoholduen, tabakoaren, hidrokarburoen eta garraiobideen matrikulazioaren kontsumoa zergapetzen duten Zerga Bereziak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eta Aduanen Errenta dira.⁹⁸

Ikerlanek zeharkako zergek emakumeentzako bereizkeria sor dezaketela adierazten dute.⁹⁹ Horregatik genero kutsua duen espainiar finantza-sistemako BEZa aztertuko da jarraian.

6.1. BEZa: finantza sistemaren diru-bilketa neurria

A. BEZari buruzko orokortasunak

BEZak ondasun eta zerbitzuen balioaren gehikuntza zergapetzen du, ekoizpen- eta banaketa-prozesuaren fase bakoitzetik igarotzearen ondorioz, azken kontsumitzailearengana iritsi arte. BEZa Europar Batasuneko herrialde guztietan aplikatzen da, eta zerga arautzen duten legediak bateratu ziren estatu kideetan, Erkidegoko barne-merkatua sortu ondoren. Espainian, zerga hau abenduaren 28ko 37/1992 Legean eta abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuan dago araututa batez ere.¹⁰⁰

Legean zerga-tasa ezberdinak eta salbuespenak jasotzen dira¹⁰¹:

- % 21eko zerga-tasa orokorra (90. art.).
- % 10eko eta % 4ko bi tasa murriztu (91. art.), ondasun jakin batzuei edo lehen premiakotzat jotzen direnei aplikatzen zaizkienak. Esate baterako, % 10 elikagaiei, oro har, etxebizitzeei, ostalaritza-zerbitzuei, betaurreko eta lentillei, bidaiarien garraioei eta ekipajeei aplikatzen zaie. Bestalde, % 4 ogiari, esnari,

⁹⁷ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 21. orr.

⁹⁸ *Ibidem*, 26. Orr.

⁹⁹ *Ibidem*, 21. Orr.

¹⁰⁰ *Ibidem*, 26. orr

¹⁰¹ *Ibidem*

arrautzei, frutei, barazkiei, zerealei, gaztei, liburuei, egunkariei, sendagaiei, desgaitasuna duten pertsonen autoei eta beste batzuei aplikatzen zaie.

- Salbuespenak, hau da, zergak ordaindu beharrik sortzen ez duten eragiketak (20. artikulua eta hurrengoak). Figura horren barruan sartzen dira ospitaleratzea eta osasun-laguntza publikoa, dentistek egindako prestazioak, gizarte-laguntzako zerbitzu publikoak, haurren eta gazteen hezkuntza erakunde publiko edo pribatu baimenduek emandakoak, eta beste batzuk.

Zerga honen irismena diru-sarrereren bilketari dagokionean handia da. Birbanaketaren ikuspegitik baina, zeharkako zerga da, eta, beraz, ez ditu pertsonaren inguruabar pertsonal eta familiarrek kontuan hartzen, aitzitik, ondasun edo zerbitzu bera kontsumitzen duten pertsona guztiak berdin-berdin zergapetzen ditu, pertsonen errenta edozein dela ere. Horregatik zerga erregresibotzat jotzen da.¹⁰²

B. Zergak jasotzen dituen genero-desberdinkeriak

“BEZaren igoerak klase txiroenen pobrezia egoera areagotzea eragiten du”.¹⁰³ “Zergak modu progresiboan igo beharreak, zeharkako zergen bidez proportzionalki igotzen direnean, diru-sarrereren banaketaren beheko mailan dauden pertsonen zerga-igoera jasaten dute, eta igoera hori oso kaltegarria izan daiteke, bizi-mailari ere kalte egin diezaioke”.¹⁰⁴ Diru-sarrereren banaketaren beheko mailan dauden pertsonak, orokorrean, emakumeak dira. Horregatik, zeharkako zergek eragin negatiboak dituzte genero kontuetan.

BEZak, ondasun eta zerbitzuen gaineko beste zerga batzuek bezala, ez du genero kutsu espliziturik jasotzen. Hala ere, praktikan, zerga hau ez da neutrala generoari dagokionean, nolabaiteko genero kutsu inplizitua du.¹⁰⁵ BEZak izaera erregresiboa du, eta, beraz, zenbat eta txikiagoa izan zergadunaren ahalmen ekonomikoa orduan eta eragin handiagoa du kontsumitzaile/zergadunarengan. Kontuan hartuta emakumeen diru-sarrerak, guraso bakarreko familia-unitateen buru direnak barne, gizonenak baino

¹⁰² *Ibidem*, 21. orr

¹⁰³ CEPAL y OXFA. (2016), "Tributación para un crecimiento inclusivo". Santiago de Chile: Cepal. Hemen ikusia: ITRIAGO, D., & ROFRÍGUEZ, C. (2019), 14. orr.

¹⁰⁴ *Ibidem*

¹⁰⁵ STOTSKY, J. (2005). Hemen ikusia: LIMA, M. I. (2017), 45. orr.

txikiagoak izan ohi direla, zeharkako zerga kaltegarriagoa izango zaie, eta diru-sarrereren proportzio handiagoa bideratuko dute BEZaren ordainketari aurre egiteko.¹⁰⁶

BEZak genero kontuan duen eraginaren azterketa honako alderdietan oinarrituko da, Kataluniako Institutuak egiten duen azterketari jarraituz:¹⁰⁷

- 1) Emakumeek desabantaila-egoera ekonomikoa dute gizonekiko, eta horregatik BEZak eragin fiskal handiagoa du emakumeengan, errenta-maila baxuagoetan baitaude, eta guraso bakarreko familien buru dira.
- 2) Arau sozialek eta, bereziki, emakumeen zaintzaileen rolak, kontsumo-eredu desberdinak sortzen dituzte sexuaren arabera, eta, horren ondorioz, emakumeek BEZaren karga handiagoa jasan dezakete zaintzari lotutako produktuak zerga ordaintzetik salbuetsita ez badaude edo zerga murriztua aplikatzen ez bazaie.
- 3) Lehen mailako ondasun eta zerbitzuak zehazterako orduan (esaterako, emakumeen hilekoarekin lotutako produktuekin), arauaren diseinuak joera androzentrikoa du. Eta zenbait produkturi ezartzen zaion zerga-tasak emakumeengan eragin handiagoa izan dezake.
- 4) Zenbait ondasun eta zerbitzu genero zehatz batekin lotzea, emakumeei bereziki zuzentzen zaizkien zenbait produkturen prezioa igotzea eragin dezake, BEZaren handiagotze bat eragiten duena (“tasa arrosa gisa ezagutzen da”)

C. Zergan genero desberdinkeriak jasotzen duten elementuak

a) Zeharkako zerga izatea

Pobrezia feminizatuta dago. Emakumeak okerren ordaindutako sektoreetan egiten dute lan; lanaldi partzialeko lanetan gehien-gehienak emakumeak dira, eta soldata txikiagoak kobratzen dituzte balio bereko lanengatik.¹⁰⁸ Arestian esan bezala, zeharkako zergek ez dute pertsonen ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen, eta erregresiboa den heinean, hau da, zerga-karga handiagoa jasaten dutela ahalmen ekonomiko txikiagoa dutenek, emakumeak dira kaltetuen suertatzen direnak.

¹⁰⁶ LIMA, M. I. (2017), 45. orr.

¹⁰⁷ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016),

¹⁰⁸ *Ibidem*, 21. orr

b) Zaintzagaratiko tasa

Genero-arau sozialek rol desberdinak esleitzen dizkiete emakumeei eta gizonei, eta genero-arrazoiengatiko desberdintasunak sortzen dituzte. Horien artean, nabarmentzekoa da emakumeei mendeko pertsonak (haurrak, adinekoak, gaixoak edo dibertsitate funtzionala dutenak) zaintzeko ardura esleitzen zaiela.¹⁰⁹

Estatistikako Institutu Nazionalaren Denboraren Erabilerari buruzko Inkestaren arabera, jardueren eguneroko banaketan, enplegua duten emakumeek batz besteko 3 ordu eta 46 minutu ematen dituzte etxeko eta familiako jardueretan, eta gizonek, berriz, 2 ordu eta 21 minutu. Emakumeek eta gizonek beren gain hartzen dituzten funtzio sozialek kontsumo-eredu desberdinak sortzen dituzte sexuaren arabera. Horrela, gizonei dagokienez, emakumeek pertsonen zaintzarekin lotutako oinarrizko produktuen proportzio handiagoa kontsumitzen dutela onartzen da, hala nola elikagaiak eta arropa. Horregatik, behar-beharrezkoak diren produktu eta zerbitzuak ez daudenean tasa murriztuekin babestuta edo salbuetsita, gerta daiteke emakumeek gizonek baino karga fiskal handiagoa izatea (GROWN eta VALODIA, 2011).¹¹⁰

c) Tanpoiagaratiko tasa

Ez Espainian, ez eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan ere, hilerokorako produktuak ez daude premia handiko produktuen artean. Horrek, disfuntzio puntuala dirudien arren, joera androzentriko argia erakusten du zerga-sisteman. Araua desegokia dela argi badago ere, araua ez aldatzeko burugogortasunak genero-harremanen desoreka erakusten du.¹¹¹

Gaur egun %10ko zerga tasa murriztua jasotzen dute hilerokorako produktuek,¹¹² baina lehen premiako produktutzat jotzen direnek jasotzen duten %4ko tasa oso murriztua jaso gabe jarraitzen dute. Horrela, ikuspegi sozial/sinboliko batetik ulertzen da zerga-sistemak ez duela emakumeen existentzia onartzen. Emakumeen balioa gizartean gutxiesten da. Gizonen talde pribilegiatuaren parte izan ezean, ez zaio aintzat hartzen.¹¹³

¹⁰⁹ *Ibidem*, 22. orr

¹¹⁰ GROWN eta VALODIA, (2011). Hemen ikusia: MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 22. orr

¹¹¹ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 37. orr

¹¹² Agencia Tributaria (2022)

¹¹³ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 38. orr

d) Tasa arrosa

Produktu eta zerbitzu ugari, gizonei edo emakumeei bakarrik zuzenduta daude. Horretarako, produktu eta zerbitzu horiek genero-rol eta -estereotipoen arabera bereizten dira. Generoagatiko bereizketa horrek prezio-desberdintasuna dakar berekin, eta «femenino» gisa merkaturatutako produktu edo zerbitzu jakin batzuk, «gizonezkoen» edo produktu «neutroak» baino garestiagoak dira.¹¹⁴ Erabilera unibertsaleko produktu batzuen prezioa garestitzen da (eta, beraz, BEZa garestitzen da) emakumezkoentzako produktu gisa diseinatze eta publizitate soilagatik.¹¹⁵

Produktuei genero-estereotipoekin lotzen diren ezaugarriak gehitzen zaizkienean produktuen “*generizazioa*”-z ari gara. *Generizazio* femeninoa honakoetan ematen da: ezaugarri estetikoak aldatzen direnean, hala nola arrosa edo lila erabiltzea; bereziki *generizatuta* dauden ikur femeninoen erabilera, batez ere haurrei zuzendutakoak; emakumeei zuzendutako etiketa esplizituak; edo produktuaren zenbait aldaketa, esaterako arroparen patroien bereizketa edo usain aldaketa; edota zerbitzuen *generizazioa*, esaterako ile-apaindegiei dagokienean. Eta gizonen aldeko *generizazioa* gertatzen da ere jostailu edo norberaren zaintzarako produktuetan batik bat.¹¹⁶

Generizazio honek genero-rol eta -estereotipoak islatu ez ezik, prezioen igoera, eta, beraz, BEZaren igoera dakar berekin.¹¹⁷

D. Ondorioak

Gauzak horrela komenigarria litzateke Kataluniako Institutuak proposatzen dituen aldaketa hauek kontuan hartzea:¹¹⁸

- Zuzeneko zergak zeharkako zergen gainera jartzen dituen joera orokorra ezartzea, zera da, ahalmen ekonomikoa duten zergak oinarrian egotea, eta horrela, zerga karga ahalmen ekonomiko gehiena dutenengan ezartzea (gehienetan gizonak).
- Tasa oso murriztuak eta salbuespenak dituzten produktuen zerrenden berrikuspen kritikoa egitea, premia handiko produktuen artean sar daitezten, hala

¹¹⁴ *ibidem*, 23. orr

¹¹⁵ *ibidem*, 41. orr

¹¹⁶ *ibidem*, 41. orr

¹¹⁷ *ibidem*, 41. orr

¹¹⁸ *ibidem*, 71. orr

nola emakumeen osasunari lotutakoak (tanpoiak, konpresak, hilekoaren kopak eta antzekoak), bai eta mendeko pertsonen zaintzaren funtzio sozialari lotutakoak ere.

- Genero-estereotiporik gabeko kontsumoa sustatzea (batez ere adingabeei eragiten dietenak) eta produktu berdinen prezioak bi aldiz finkatzeagatik diskriminazio-egoerarik gertatzen ez dela bermatzea.

7. Ondorioak eta proposamenak

Aztertutako finantza sistemaren neurri hauek guztiak ez dituzte eragin bat ere onik sortzen genero berdintasunari dagokionean. Emakumeen lan egiteko erabakiarri eragiten diote, eta lan egiten ez duen emakumeak, eta beraz ekonomikoki mendekoa dena, genero indarkeria egoeratik irtetzeko zailtasun handiagoak izango ditu.

Emakumeen desberdinkeria egoerei aurre egiteko ekintza positiboko neurriak ezartzen dira, batik bat, amatasunagatiko kenkaria. Baina CALVARROk adierazten duenez ez legoke neurri mota hauek ezartzerik, genero kutsua gordetzen duten neurriak ez baleude. Sistema neutroa ezartzearekin nahikoa litzateke.¹¹⁹

Finantza politikak funtsezko elementua dira desberdinkeria eta pobreziari aurre egiteko. Horregatik gizarteak hobetzen dituzten jarrerak sustatu, genero-rol tradizionalak ezabatu eta gizarte berdintsu batera garamatzaten jarrerak sustatzea ezinbestekoa da.¹²⁰

Baterako aitortpenak familia-eredu tradizionalaren irudia iraunarazten du eta emakumeari lan egiteko pizgarriak kentzen dizkio. Figura hau ezabatzeak estatuaren zein autonomia erkidegoen diru sarrerak nabarmen igotzea eragingo luke, eta horrekin emakumearen garapenean eragin lezaketen gizarte zerbitzuak ezar litezke.¹²¹ Haurtzaindegien zerbitzu doako eta unibertsala, 35 orduko lanaldi laburragoak eta emakumeen lanaldi osoko kontratazioa sustatzeko neurriak berdintasuneranzko aurrerapausoak lirateke, ez baitute emakumeak lana uzteko erabakia hartzera bultzatzen.¹²²

¹¹⁹ CALVARRO, J. M. D. (2017), 13. orr.

¹²⁰ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 2. orr

¹²¹ CALVARRO, J. M. D. (2017), 16. orr.

¹²² LIMA, M. I. (2017), 4. orr.

Komenigarria litzateke zergaren indibidualizatzeko osoa burutzea, gizon eta emakumeentzat baldintza berdintsuagoak ezartze aldera. Araudi espainiarrak aintzat hartzen duen zergadunaren egoera zibilari erreparatzeari utzi beharko litzaioke. "Familiak" zergan duen eragina ezabatu beharko litzateke eta "pertsonek" zergadun soil gisa ezarri.¹²³ PFEGZren indibidualizatzeko osoarekin, hau da, baterako aitortzea ezabatzearekin zenbait familia kalteturik suertatu litezke. Baina DE VILLOTA eta FERRARI-ren arabera, lortuko liratekeen diru-sarreraren gehikuntzaz familia kaltetuentzako gastu soziala ezartzeko bestekoa litzateke.¹²⁴ Erresuma Batuan, 1990ean baterako aitortzea ezabatzea eragin positiboa izan du emakume ezkonduen lan-eskaintzan.¹²⁵

Lan egiteari uzteko pizgarri horien ondorioz, emakume asko babesik gabe geratzen dira, bizibiderik gabe, lan-esperientziarik gabe, kotizaziopeko pentsiorik gabe, etab. Eta genero-indarkeriaren kasuan, nora joango da baliabide propioak ez duen emakume bat? Emakume ezkonduak enplegu formalek aldentzeko pizgarri horiek ez dute oinarririk.¹²⁶

Orduan, finantza sistemak genero ikuspegitik emakumeentzako ondorio negatiborik ez izateko, honakoak izan behar ditu kontuan: etxeetako genero-desberdintasunak arintzen edo indartzen dituen egiaztatu behar du; egitura fiskal progresiboagoa izan behar du; diskriminazio esplizitu oro saihestu behar du; jokabide-aldaketak sustatu behar ditu, dauden genero-desberdintasunak eraldatzeko; eta PFEGZri dagokionez banakako aitortzea sustatu eta kenkariaren eta txikiaren erabilera arduratsu bat izan behar du.¹²⁷

Finantza sistema espainiarraren genero kutsuak ezabatzeko CASTROk eta MEDIALDEak (2010) ematen dituzten proposamenak hauek dira¹²⁸:

- Politika publikoak genero-berdintasunera bideratzea, lana sexuaren arabera banatu ez dadin eta pertsonak aldi berean zaintzaile eta sostengatzaile izan daitezen
- Erantzunkidetasunaren ikuspegia lana eta familia bizitza uztartzeko neurrietan

¹²³ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 60. orr.

¹²⁴ Hemen ikusia: MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 52. orr

¹²⁵ PAZOS, M. (2006), 18. orr.

¹²⁶ PAZOS, M. (2021), 168. orr.

¹²⁷ CALVARRO, J. M. D. (2017), 23-24. orr.

¹²⁸ Hemen ikusia: CALVARRO, J. M. D. (2017), 24 orr.

- Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoak, pertsonak beren alderdi profesionalean erabat garatu daitezela ez eragozteko.
- Eredu tradizionala iraunarazten duten ahaidetasun-harremanetan oinarritutako eskubideak edo pribilegioak ez ezartzea..
- Zergen eta prestazioen parekatze osoa eta besterenezina. Puntu honetan, arreta berezia jarri behar da familiaren zaintzarekin zerikusia dutenekin, hala nola amatasunagatiko kenkariarekin, zeina amarentzat soilik den. Honek emakumearen adingabea zaintzeko erantzukizun eskusiboaren mezua bidaltzen du, eta gainera lana ez uztearen kargarekin. Zera da lana eta zaintza uztartu ditzala, baina bakarrik, bikotekidea aintzat hartu barik.
- Genero-neutraltasunaren eta berdintasun-printzipioaren aplikazioa, emakumeen salbuespena saihestea eta ezabatzea dakarrena, zuzenean edo zeharka.

8. Aztertu gabeko gaiak

Finantza sistemari lotuta, lan honetan aztertu ez diren, baina emakumeei eragiten dien arazo gehiago egon badaude:

- Zerga-saihesteak emakumeentzako dituen eraginak.¹²⁹
- Gizonei mesede gehiago egiten dizkioten beste kenkari batzuk, hala nola gizarte-aurreikuspeneko entitateei ekarpenak egiteagatiko kenkaria.¹³⁰
- Gizonentzako mesedegarriagoak diren beste neurri batzuk: kapitalaren etekinen lehentasunezko zerga-tratua eta PFEGZn zerga-salbuespenak
- Aurrekontu publikoen urritzea, dirua paradisu fiskaletara eramateagatik.¹³¹

Hurrengo ikerketetarako zabalik uzten dugu.

¹²⁹ MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), 62. orr.

¹³⁰ *Ibidem*, 53-54. orr.

¹³¹ ALLIANCE SUD, CENTER FOR ECONOMIC AND SOCIAL RIGHTS, GLOBAL JUSTICE CLINIC, NEW YORK UNIVERSITY SCHOOL OF LAW, PUBLIC EYE, TAX JUSTICE NETWORK (2016)

9. Eranskina: lanaren etekinaren hobaria

Lanaren etekinaren hobaria, azaldu bezala, lan-etekinengatik ordaindu beharreko zerga-karga murrizteko mekanismo gisa ezartzen da.

PFEGZk zergadunaren lan pertsonaletik edo hark dituen lan-harremanetatik eratortzen diren diruzko zein gauzazko kontraprestazio eta onura guztiak lan etekintzat jotzen ditu, eta beraz, zergapetzen ditu (17.1. art. LKA; 15. art. FA). Lan etekin guztien baturak (legeak ezartzen duen eran) *lanaren etekin osoa* osatzen dute (18. art. LKA; 19. Art. FA). Baina zerga-tasa aplikatzeko, lanaren etekin osoari *gastu kengarriak* (19. art. LKA; 22. art. FA) eta *lanaren etekinaren hobaria* (20. art. LKA; 23. art. FA) murriztu behar zaizkio, eta orduan lortzen den *lanaren etekin garbia* zergapetu egiten da.

Lan-etekin garbia
(+) Lan-etekinak (guztiak edo portzentai batengatik konputatzen direnak)
(=) LAN ETEKIN OSOA
(-) Gastu-kengarriak
(=) X
(-) <u>Lanaren-etekinaren hobaria</u>
(=) LAN ETEKIN GARBIA

Iturria: norberak egina

Lan-etekin guztien baturaz eta konputoaz¹³² lortzen den *lan etekin osoari gastu kengarriak* kentzen zaizkio. Eta lortzen den emaitzaren arabera lan hobariaren zenbatekoa aldatu egiten da.

Lurralde komuneko arauak honako zenbatekoak jasotzen ditu PFEGZren 20. artikuluan:

Artículo 20. Reducción por obtención de rendimientos del trabajo.

Los contribuyentes con rendimientos netos del trabajo inferiores a 16.825 euros siempre que no tengan rentas, excluidas las exentas, distintas de las del trabajo superiores a 6.500 euros, minorarán el rendimiento neto del trabajo en las siguientes cuantías:

¹³² PFEGZk jasotzen duenez lan etekin osoa etekin guztiek osatzen dute (art 18.1 eta .3 LKA; art. 19.1 FA), Baina zenbait etekin, legeak zehatzen dituenak (art 18.2 eta .3 LKA; art. 19.2 FA) portzentai batzuk aplikatuta konputatzen dira.

a) *Contribuyentes con rendimientos netos del trabajo iguales o inferiores a 13.115 euros: 5.565 euros anuales.*

b) *Contribuyentes con rendimientos netos del trabajo comprendidos entre 13.115 y 16.825 euros: 5.565 euros menos el resultado de multiplicar por 1,5 la diferencia entre el rendimiento del trabajo y 13.115 euros anuales.*

Orduan:

- lan etekin osoari gastu kengarriak kenduta 13.115 euroko emaitza duten zergadunentzat hobaria 6.500 eurokoa izango da;
- Eta 13.115 eta 16.825 arteko emaitza dutenentzat hobaria horrela kalkulatu da: 5.565 eurori lortutako lan etekin osoa 1,5engatik biderkatuta kenduko zaio.

Lanaren-etekinaren hobaria (lurreko komunean)	
X = Lanaren etekin osoa - gastu kengarriak	Hobaria
X = ≤13.115	6.500 €
X = 13.115 - 16.825	5.565 € - Y (Y = Lan etekin osoa x 1,5)

Iturria: norberak eginda

Bizkaiko Foru Arauak zenbateko ezberdinak jasotzen ditu 23. artikuluan:

23. artikulua. Lanaren etekinen hobaria.

1. Lanaren etekin osoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboak honako hobari hauek izango ditu:

a) Diferentzia 7.500 euro edo txikiagoa bada, 4.650 euroko hobaria egingo da.

b) Diferentzia 7.500,01 eta 15.000 euro artekoa bada, honako hobari hau egingo da: 4.650 euro ken diferentzi horri 7.500,00 euro gutxitu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,22 egitetik ateratzen den zenbatekoa. c) Diferentzia 15.000 eurotik gorakoa bada, 3.000 euroko hobaria egingo da.

2. Zerga-oinarrian lanetik ez datozen errentak konputatzen badira, eta errentok 7.500 eurotik gorakoak badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da.

Beraz:

- lan etekin osoari gastu kengarriak kenduta 7.500 euroko edo gutxiagoko emaitza duten zergadunentzat hobaria 4.650 eurokoa izango da;
- 7.500,01 eta 15.000 euro artekoa dutenentzat hobaria horrela kalkulatu da: lan etekin osoaren eta gastu kengarrien artean lortutako diferentziari 7.500 kenduko zaizkio, emaitza 0,22rengatik biderkatu, eta zenbateko hau 4.650 eurori kenduta ateratako emaitza hoberia izango da;
- 15.000 euro baino gehiagoko lan etekin osoa dutenei 3.000 euroko hobaria kenduko zaie. lan etekin osoa 1,5engatik biderkatuta kenduko zaio.

Lanaren-etekinaren hobaria (Bizkaiko Foru Ogasunean)	
X = Lanaren etekin osoa - gastu kengarriak	Hobaria
$X = \leq 7.500$	4.650 €
$X = 7.500,1 - 15.000$	$4.650 \text{ €} - Z$ Z: (=) Lan etekin osoa (-) Gastu kengarriak (=) X (-) 7.500 (=) A (*) 0,22 (=) Z
$X = \geq 15.000$	3.000 €

Iturria: norberak eginda

Bibliografía

- AGENCIA TRIBUTARIA (2022), *Manual de actividades económicas. Obligaciones fiscales de empresarios y profesionales residentes en territorio español*. <https://sede.agenciatributaria.gob.es> (azken aldiz kontsultatuta 2022/04/23)
- ALLIANCE SUD, CENTER FOR ECONOMIC AND SOCIAL RIGHTS, GLOBAL JUSTICE CLINIC, NEW YORK UNIVERSITY SCHOOL OF LAW, PUBLIC EYE, TAX JUSTICE NETWORK (2016), *Swiss Responsibility for the Extraterritorial Impacts of Tax Abuse on Women's Rights*
- CALVARRO, J. M. D. (2017), "La valoración del sistema fiscal desde el feminismo y la perspectiva de género", *Anuario de la Facultad de Derecho*. Universidad de Extremadura, (33), 4-4.
- CARVAJO, D. (2009), "Impuestos y género. Algunas reflexiones", *Crónica tributaria*, (132), 83-92.
- COELLO, I., SALAMANCA, G. (2014), "Ajustar la lente. Fiscalidad desde un enfoque de género. Metodología de Análisis", *Documentos de Trabajo de Oxfam*.
- CUBERO, A. M., JIMÉNEZ, M. D. M. (2012), "El tratamiento de la mujer en el IRPF. Medidas de discriminación positiva y medidas que favorecen la prolongación del rol tradicional", *Estudios Financieros. Revista de Contabilidad y Tributación*, 355, 69-96.
- DELEGACIÓN DEL GOBIERNO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO. <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/home.htm> (azken aldiz kontsultatuta: 2022/04/23)
- IGLESIAS, M. (2017), *El tratamiento fiscal de la mujer trabajadora y emprendedora en el I.R.P.F.* Tirant lo blanché, Valencia
- OXFAM (2019), *Tienen los impuestos alguna influencia en las desigualdades entre hombres y mujeres?*
- LIMA PINILLA, M. I. (2017), *El impacto de género de la configuración de la declaración conjunta de IRPF* (Tesis doctoral), Universidad Rey Juan Carlos, Madrid
- LOENTIENDO.COM (2022) *Ayudas económicas para víctimas de violencia de género*. <https://loentiendo.com/ayudas-victimas-violencia-de-genero/> (azken aldiz kontsultatuta: 2022/04/23)

- MARTÍNEZ, M., CUTILLAS, S., & DE LA FUENTE, M. (2016), “La fiscalidad en España desde una perspectiva de género”, *Institut per a l’Estudi i la Transformació de la Vida Quotidiana*.
- MARTÍNEZ-REDONDO, P., AROSTEGUI, E. (2021) “Situación en España de la violencia de género y el abuso de sustancias. Revisión de la evidencia y propuestas para el abordaje conjunto de la violencia de género y el abuso de sustancias en los servicios de atención”, *Ministerio de Sanidad. Delegación del Gobierno para el Plan Nacional sobre Drogas*, Madrid.
- MEDIALDEA, B., PAZOS, M. (2011), “¿Afectan los impuestos a la (des) igualdad de género? El caso del IRPF español. Presupuesto y gasto público”, *Instituto de Estudios Fiscales*, (2)
- ONU MUJERES (2021), *Midiendo la pandemia en la sombra: La violencia contra las mujeres durante el Covid-19*. <https://data.unwomen.org/sites/default/files/documents/Publications/Measuring-shadow-pandemic-SP.pdf> (azken aldiz kontsultatuta: 2022/04/23)
- ONU MUJERES (2022) *Hechos y cifras: Poner fin a la violencia contra las mujeres*. <https://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/facts-and-figures> (azken aldiz kontsultatuta: 2022/04/23)
- PAZOS, M. (2006), “Género e Impuesto sobre la Renta (IRPF) en España” *XIII Encuentro de Economía Pública: Playadulce (Almería), Hotel Playadulce. 2 y 3 de febrero (p. 48)*, *Servicio de Publicaciones*
- PAZOS, M. (2006), “Sesgos de género en el impuesto sobre la renta”, *Mujeres en Red, El Periódico Feminista*. <https://www.mujeresenred.net/spip.php?article616> (azken aldiz kontsultatuta 23/04/2022)
- PAZOS, M., (2009), “Impacto de género de las políticas públicas”, *Documentos-Instituto de Estudios Fiscales*, (23), 1.
- PAZOS, M. (2013), *Desiguales por ley: las políticas públicas contra la igualdad de género*. Catarata, Madrid.
- PAZOS, M. (2021), “La política fiscal desde la perspectiva de género: el caso de los impuestos sobre la Renta Personal (IRPF)”, *Zergak: gaceta tributaria del País Vasco*, (61), 157-168.
- PAZOS, M., RODRÍGUEZ, V., CABRERA, M., RODRÍGUEZ, A., GUTIÉRREZ, P., RODRÍGUEZ, C.,... MEDIALDEA, B. (2010), “Fiscalidad y equidad de género” *Fundación Carolina*, (43)

HACIENDA GENERAL (2021) *Presupuestos Generales del Estado: Memoria de beneficios fiscales para el año 2021*
https://www.sepg.pap.hacienda.gob.es/Presup/PGE2021Proyecto/MaestroTomos/PGE-ROM/doc/L_21_A_A2.PDF

HACIENDA GENERAL (2022) *Presupuestos Generales del Estado: Memoria de beneficios fiscales para el año 2022*
https://www.sepg.pap.hacienda.gob.es/Presup/PGE2021Proyecto/MaestroTomos/PGE-ROM/doc/L_21_A_A2.PDF

DE VILLOTA, P., HERRERO, I. F. (2001), "Análisis de la Política Fiscal desde la perspectiva de género: La individualización de derechos fiscales como objetivo de una política de igualdad de mujeres entre hombres y mujeres", *VIII Encuentro de Economía Pública: Cáceres. 8 y 9 de febrero de 2001* (p. 40).

Lege-bibliografía:

1978ko Espainiako Konstituzioa, EAO 311 zk. (1978)

3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskadiko Autonomia Estatutua, EAO 306. zk. (1979)

37/1992 Legea, abenduaren 28koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa, EAO 312 zk. (1992)

12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoa onestekoa, EAO 124 zk. (2002)

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa. EAO 313 zk. (2004)

1369/2006 Errege Dekretua, azaroaren 24koa, behar ekonomiko bereziak eta lana aurkitzeko zailtasunak dituzten langabeentzako laneratzeko errenta aktiboaren programa arautzen duena, EAO 290 zk. (2006)

35/2006 Lege, azaroaren 28koa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta sozietateen gaineko, ez-egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partzialki aldatzen dituena, EAO 285 zk. (2006)

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzekoa, EAO 71 zk. (2007)

13/2013 Foru Araua, abenduaren 5koa, Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa, BAO (2013)

11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, EAO 261 zk. (2021)